

IRAGARKIA

Udalbatzak, abenduaren 18an eginiko Osoko Bilkuran, hasiera batez onartu ditu 2019 urterako Aurrekontu Orokorra, Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda. Aurrekontu orokor hori honako erakunde hauek osatzen dute: Hernaniko Udala, "Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak" erakunde autonomoa eta "Ereñotzu" Toki Entitate Txikia.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan xedatutakoa betez, Aurrekontua jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

- a) Erakutsita dagoen lekua: Kontu-hartzailetzan.
- b) Aurrekontua aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.
- d) Inpugnatzeko arrazoiak: Aipaturiko Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) Aurkezteko bulegoa: Udal sarrera erregistroa, eta 39/2015 Legeak, Administraziozko Prozedurari buruzkoak, bere 16.4 artikuluan xedatzen dituen gainontzekoak.
- f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epean inolako erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, Aurrekontu Orokorra, Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda behin betiko onartutzat joko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Hernani, 2018ko abenduaren 18an. - Luis Intxauspe Arozamena, alkatea